

# **XXIX. ARGAZKI BILERA**

## **XXIX JORNADAS FOTOGRÁFICAS**

### **2022**

**RAMÓN SERRAS**

**Bere eskuetan**

***En sus manos***

Urteroko legez, Zarauzko Photomuseumek 2022ko Argazki Bilera aurkezten du. Aurtengo edizioa berezia izango da eta osorik Ramón Serrasi eskainiko zaio.

Halaber, biziki eskertu nahi diegu ekimen hau burutzeko, urtero bezala, beraien erakustokiak uzten dizkigutenean Zarauzko erankundeei.

*Un año más, el Photomuseum de Zarautz presenta las Jornadas Fotográficas - Argazki Bilera 2022. La presente edición de las Jornadas Fotográficas será especial y estará dedicada íntegramente a Ramón Serras.*

*Así mismo, aprovechamos la ocasión para agradecer la colaboración de las distintas entidades de Zarautz que, como todos los años, ceden sus espacios expositivos para tomar parte en esta iniciativa.*

**ANTOLATZAILEA:**



**Photomuseum**

**LAGUNTZAILEAK:**




TORRE LUZEA SAN S ENBA

Argazki & Zinema Museoa  
San Inazio 11, 20800 - Zarautz  
Tl: 943 13 09 06  
[photomuseum@photomuseum.name](mailto:photomuseum@photomuseum.name)  
[www.photomuseum.name](http://www.photomuseum.name)

# ERAKUSKETAK ~ EXPOSICIONES

---



**PHOTOMUSEUM ~ San Inazio 11**

2022/04/12-2022/05/22

**ORDUTEGIA: 10-14H. ETA 17-20H. ASTEARTETIK  
IGANDERA**

**APIRILAK 18 ASTELEHENAK ZABALIK**

**HORARIO: 10-14H. Y 17-20H. MARTES A  
DOMINGO**

**LUNES 18 DE ABRIL ABIERTO**



**SANZ ENEA ~ Nafarroa kalea 22**

2022/04/12-2022/05/29

**ORDUTEGIA: 18-20H. EGUNERO**

**HORARIO: 18-20H. DIARIO**



**TORRE LUZEA ~ Kale nagusia 28**

2022/04/12-2022/05/22

**ORDUTEGIA: 18-20H. EGUNERO**

**HORARIO: 18-20H. DIARIO**

# RAMON SERRAS AIZPURUA

## *Bere eskuetan*

2022ko Argazki Bileraren XXIX. edizioaren helburua Ramon Serras Aizpurua oroitzea eta omentzea da. Horretarako, haren lan esanguratsuenetako batzuk biltzen dituen atzera begirakoa aurkeztu dugu. Azken finean, bere obra zabal eta oparoaren erakusleihoa da.

Photomuseum, Sanz-Enea eta Torre Luzea aretoetan ikusgai dauden erakusketeek bere bilduma emankor eta askotarikoaren zati bat dira. Bertan aurki ditzakegu XIX. mendeko prozedurekin egindako argazkiak (estenopeikoak) eta bere garaikoak (cibachrome, argazki panoramikoak, polaroid-ak). Argazkilari urduria zen, eta argazki-prozesu ugari ikertzen eta esperimentatzen jakin zuen.

Gaiari dagokionez, genero fotografiko tradizionalak, hala nola, erretratua, paisaia, natura edota natura hila, maisuki garatu zituen. Era berean, Ramon modernagoarekin topo egiten dugu erreportari lanetan dabilenean, kaleko edo eguneroako bizitzako irudiak islatzen dituenean.

Bere irudiek erakusketa ugari osatu zituzten, banakakoak zein kolektiboak, bere Zarautz maitetik abiatuta, areto eta herrialde askotan ikusgai egon zirenak.

Era berean, bere lan didaktikoa azpimarratzeko aukera aprobetxatu nahi dugu. Autodidakta izanik, berak aurre egin behar izan zien gabeziak ez errepikatzeko ahalegina egin zuen bere inguruko argazkilarien belaunaldi berriei laguntzeko asmoz. Hori dela eta, *Zarauzko Argazkizale Elkartea/Sociedad Fotográfica de Zarautz* erakundearren sorrera bultzatu zuen eta bertako lehen lehendakaria izan zen. Gainera, Zarauzko Photomuseumaren sortzaileetako bat izan zen.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu erakusketa hauekin batera doazen testuekin egindako ekarpentzako eskuzabalengatik honako hauei: Isabel Agirretxe (Zarauzko Argazkizale Elkarte), Pío Guerendiain, Josep M<sup>a</sup> Ribas i Prous, Jesus Mari Sarasua, Joxepo Teres eta Miguel Zugaza.

Edizio hau gure Ramon lagun minari egindako omenaldi sentitua da, argazkizale amorratuarri.

# RAMON SERRAS AIZPURUA

## *En sus manos*

La edición XXIX de la Argazki Bilera de 2022 tiene como objetivo recordar y homenajear a Ramón Serras Aizpurua, para ello presentamos una retrospectiva con algunos de sus trabajos más significativos. En definitiva, un acercamiento a su amplia y prolífica obra.

Las exposiciones que se exhiben en las salas del Photomuseum, Sanz-Enea y Torre Luzea recogen parte de su extensa y variada colección. En ellas encontramos desde fotografías realizadas con procedimientos del s. XIX (estenopeicas), hasta los propios de su época (cibachrome, fotografías panorámicas, polaroids). Fotógrafo inquieto, supo investigar y experimentar numerosos procesos fotográficos.

En cuanto a la temática, desarrolló con maestría artística los tradicionales géneros fotográficos como el retrato, el paisaje, la naturaleza o el bodegón. Igualmente, descubrimos un Ramón más actual ejerciendo como reportero, plasmando imágenes de la calle o de la vida cotidiana.

Sus imágenes fueron nutriendo numerosas exposiciones, tanto individuales como colectivas, muestras que partiendo de su querido Zarautz fueron exhibidas en múltiples salas y países.

Así mismo, aprovechamos la ocasión para subrayar su labor didáctica. Siendo autodidacta quiso que las carencias a las que él tuvo que hacer frente, no se repitieran en las nuevas generaciones de fotógrafos de su entorno. Por ello, impulsó la creación de *Zarauzko Argazkizale Elkartea / Sociedad Fotográfica de Zarautz* siendo fundador y primer presidente, y además fue cofundador del Photomuseum de Zarautz.

Por último, queremos mostrar nuestro agradecimiento a Isabel Agirretxe (Zarauzko Argazkizale Elkartea), Pío Guerendián, Josep M<sup>a</sup> Ribas i Prous, Jesus Mari Sarasua, Joxepo Teres y Miguel Zugaza por su generosa contribución con los textos que acompañan a estas exposiciones.

Esta edición es un sentido homenaje a nuestro querido Ramón, un apasionado de la fotografía.

## TESTU OSAGARRIAK

Argazkigintzaren historia museoen historiarekin parez pare doa ia. Gogora dezagun argazki-irudiak jasotzeko eta erregistratzeko lehen prozedurak XIX. mendearen aurreneko herenean asmatu zituztela, gaur egun miresten ditugun museo asko ireki ziren aldi berean; Prado Museoa, horien artean. Izañ ere, 1828an Goya hil baino lehenago, Niépce frantziarrak etxeko leihotik hartutako irudi bat finkatzea lortu zuen, hau da, lehen argazkitzat jotzen dena. Teknikaren aurrerapen itzel hartaz jabetu gabe, Aragoiko margolari urtetsua orduan liluratuta zebilen artean ere litografia berritzaileak eskaintzen zizkion adierazteko aukerekin.

Argazkia baino lehenagotik, baita museoak baino lehenagotik ere, Goyak Errege Bildumako Velázquezzen koadroen kopiak marraztu behar izan zituen, haien akuaforantean grabatzeko. Orduan argazkia existitu izan balitz, *Meninak* eta sevillarraren beste maisulan batzuei buruz hark egindako irakurketa berezia galduko genukeen.

Hain zuzen ere, artea berregitea izan zen argazkigintzaren lehen funtzioa museoetan, grabatuak ordezkatuz, irudi modernoa asmatu zenetik lan handien irudiak zabaltzeko balio izan zuten grabatu haiek. Argazki-tekniken bilakaera azkarrak haien kalitatea hobetu besterik ez zuen egin, kolorea erantsiz eta, aldi berean, inprimatzeko bitarteko mekanikoei aparteko egiazkotasuna ematen zieten irudiak eskainiz.

Gaur egun mundu digitalean murgilduta gaudela, argazkiak ateratzeko eta erreproduzitzeko kalitatean emaitza benetan harrigarriak lortzen dira, hala nola Gigapixel izeneko irudian. Duela urte gutxi batzuk, Prado Museoak formatu horretan zabaldu zituen bere maisulanetako batzuk, Google Earthen bidez. Aro garaikidearen hasieran museoa asmatu zutenetik, ez zen gertatu artea demokratizatzeko halako ekintza erradikalik; Interneteko unibertso hedatuan zehar eskubide zabaleko bidaia zen.

Ez ditugu ahaztu behar, halaber, argazkigintzaren bilakaerak artea aztertzeko eta ikertzeko beste teknika batzuk erregistratzean izan dituen ondorio onuragarriak, hala nola X izpiak, izpi ultramoreak edo islatze infragorriaren magia, museoaren begi zientifikoa ustekabeko mugetaraino hobetzeko aukera eman diguna.

Erakustaldi tekniko geldiezin horrekin batera, argazkigintzari eta museoari ere laster lotu zitzaien artistaren begirada erabakigarria, kamerarekin artearen tenplura hurbiltzen den argazkilariarena, beste artista batzuen lanei eta bisitariei galdezka hasteko.

Azkenik, harreman intimo horrek, buztanari kosk egiten dion arrainak bezala, halako batean argazkia bera museoaren intereseko objektu bihurtu zuen, edo Zarauzko *Photomuseum* zoragarri honetan bezala, espezializatzeko arrazoi nagusi. Etxean bertan, argazkiak eta museoak omenaldia egingo diote gaur sortzaileetako bati, gogoan daukagun Ramon Serras maiteari.

MIGUEL ZUGAZA

Lau hamarkada baino gehiago joan dira dagoeneko Zarauzko Argazkilari Elkartea sortu zenetik, eta, gaur-gaurkoz, guztiz finkatuta eta jardueraz beteta dagoen elkartea da; horren erakusle dira, besteak beste, erakusketak, rallya, proiekzioak, lehiaketa, ikastaroak eta *Nazioarteko Mostra*. Hori guztia, Elkarteak izaera didaktikoa, hezitzalea eta herrikoia izan dezan pentsatuta egin izan da; herriak herriarentzat antolatua. Eta izaera hori norbaiti aitortzekotan, Ramon Serrasi aitortu behar zaio, hark finkatu baitzituen elkarteararen oinarriak, gero beste batzuek argazkilartzarako zaletasunaz goza zezaten.

Ramon izan zen Batzarreko lehenengo lehendakaria, langile nekaezin eta konprometitu moduan lan egin zuena. Beste federazio batzuekiko harremanak landu zituen, eta zer eskainia zeukan jendearen lankidetzaren bila ibili zen. Hobetzeko grinaz, asmo sendoko izaeraz, bikaintasuna izan zuen helburu ekindako proiektu guztieta.

ZAEko bazkideok asko daukagu hari eskertzeko, eta, horrexegatik, hil zen urtean, 2021. urtean, Batzarrak erabaki zuen haren proiekturik maiteena izandako *MOSTRAK* hemendik aurrera bere izena izatea: **ZARAUZKO “RAMON IGNACIO SERRAS” NAZIOARTEKO ARGAZKILARITZA MOSTRA**.

Gogoan izango zaitugu, beti.

**ISABEL AGIRRETXE**  
Zarauzko Argazkizale Elkarteko lehendakaria

Ramon Serras lagun handi eta zintzoa izan zen eta izan da beti niretzat. Milaka eta milaka artista ezagutzeo pribilegioa izan dut. Baina hura beti egongo da nire eskuetako hamar hatzek hartzen duten espazio doi nabarmenean.

Adiskidea (argazkigintzaz haratago), nire lurrean eta berean —*Euzkadin*— elkartze gogoangarrieta, berrogeiko urte zail haitan Jose Antonio Agirreren inguruko kide izandakoek, Reusen erbesteratu eta atzerriratutako nire aspaldiko lagun maitagarriek adierazten eta gogoratzen zuten izenarekin...

Garai bateko Reusko gure Nazioarteko Aretoetako ohiko kolaboratzailea izanik, Epaimahaiko autoritate lanetan, bere herrialdeko argazki-elkarteen artean adiskidetasun-zubi eginkizunean aritu zen... hitz-jarioa emarian solasaldietan, haren iruzkin alaiak, askotan jenialtasun bizi-bizikoak, txinpartatsuak...

Espainian argazkigintzari buruzko lehen Museoa sortzeko proiektu handiaren ingurukoekin batera egindako lan berritzailearen garrantzia... ziur aski, bere lurraldean soilik gauzatu ahal izan zen erronka...

Nire oroitzapenak haren etxeoen baserri zaharraren ondoko bazkari kuttunen miraz, herrialdeko gastronomia intimoa ezagutzen, edo haren elkarreko gastronomikoan topaketaren bat, non plazerez zelatan ibili nintzasion sukaldari bikainen bati, eta plater zaharren bat prestatu nuen...

Eta pagadietako ibilaldiak, perretxiko garaian... argien oroitzapena, eta egunaren hasierako lanbroaren eta behe lainoaren leuntasuna...

Haren obra behatzeko plazera... *Polaroid SX*aren aitzindari esperimentatzailea (hari jarraituta hasi ziren beste lagun batzuk)... berritzailea langintzaren alderdi elkarlotu anitzetan...

...itsasertzeo labarren zale amorratua, argazki-estudio berezi moduan zerabilen, modelo lirainen ingerada ederrekin batera...

... Zarauzko hondartzaren ondoko panoramikak, erreportaje-balio handikoak...

... collagearen esperimentatzaile barnekoia (inork gutxik miretsiz gozatu ahal zuen altxor ezkutua, biziki gomendatzen dut horri arretaz erreparatza, haren obraren ondare aparta irizten baitiot)...

... *arte poveraren* eta *pinholearen* ikertzailea, kolore indartsuz iratzeen eta loreen ondoan deskribatuko zituen basoiei eta naturari buruzko ikuspegi dotorez ondua...

Zer gehiago azal nezake... duela urte gutxi Katalunian izandako azken topaketa baten mira soilik, aspaldiko lagunen beroan, eta berriro ere baseliza baten ondoko basoak hautatuz, agian luraren senidetasunaren eta naturaren arteko elkar-min zaharrak estekatzen...

JOSEP M RIBAS I PROUS

## RAMONEN ITZAL POSITIBOA

80ko hamarkadaren amaieran, Nafarroako Argazkilaritza Elkarteko Argazkigintza Aurreratuko Tailerren zuzendari nintzela, Iruñera etorri zen Cristina Zelich, lehen negatibo-positibo prozedura izandako paper gaziaren teknikari buruzko tailerra ematera; Fox Talbotek XIX. mendean asmatutako kalotipoa zen. Ikusmina eragin zien parte-hartzaileei, ikusgarria baitzen begien aurrean potasio ferrizianuroz aldez aurretik sentsibilizatutako akuarela paper gainean, negatiboarekin kontaktuan eguzkitan zuzenean jarrita, nola agertzen zen tonu monokromo ubel samarreko irudi positiboa, egun-argi betean errebelatzen ikusten zen Polaroid HASIERAKO bat gogora zekarrena.

Prozeduran interesatuta, negatibo sail luze bat landu nuen harekin, 24x24 cm-ko formatuko paperean, niretzat klasikoa eta errepikatua den gai bati buruz: Zarauzko hondartzako toldoak. Emaitzak erakutsi nizkion Ramoni, eta proposatu zidan, berak ere Polaroida manipulatz gai bera lantzen jarraitzen zuenez, erakusketa bat egin genezakeela elkarrekin 1991n Zarautz erdiguneko Zazpi galerian. Esan eta egin; arrakasta handia izan zen, bai bisitari aldetik, bai eta salmenta aldetik ere!

Nire kalotipoen artean Ramonen erretratu bat sartu nuen, hondartza ondoko horma zuri batean bermatuta, haren adiskide *Luziano* pintoreak gorputz osoz tamaina naturalean marratzua. Talbotipoko irudia agertu zenean, iruditu zitzaidan Ramonek itzala positiboa zeukala atzean, bikain islatzen zituena bai haren izateko modua, bai bere ilusio, lan, gogo eta adiskidetasunarekin uzten zihoaigun ondarea.

Bizitza osoan eta alderdi guztietan erakutsitako dohainak ziren. Aitaren tradizioa jarraitu zuen gozogile moduan, Saint Honoré tartak, Kaputxina eta Ponche pastelak, esne gain eta txokolatez estalitako bizkotxo arinezko plantxak, mota guztietako turroiak, ezin ahaztu daitekeen ia benetako tamainako krokodiloa, bonboiak nahiz trufak. Paradisua, txikientzat eta handientzat.

Argazkilari gisa, ez zen geldirik egotekoa, hondartza luzean zehar pasieran egunero, siesta egin ordez, ikusten zuen berri orori argazkiak ateratzen. Eta Celina emaztearekin, musa eta modelo zuenarekin, prozedura guztietan, zuri-beltzean, koloretan, diapositibetan, Polaroid manipulatuan, pinturan ikasitakoa nabarmenduz, batzuetan kostaldeko Flysch-eko haitzetan kokatutako modelo bezala, beste batzuetan bere Euskal Herri maiteko mendietako azti eta sorgin aztoragarri. Kirolak, festak, folklorea, dena interesatzen zitzaion hari.

Bildumagile moduan, lehenik kamera eta argazki zaharren bilduma, eta, gero, Leopoldo Zugaza adiskidearekin, Spainia osoko lehen argazki-museoa izatera iritsi zena eratzeko aurreneko urratsak emanez, Zarauzko Photomuseum museoa.

Ez nuen inoiz pentsatu inguruan zeuzkan ekintza eta pertsona guztiak biltzen zituen itzal positibo handi emankor hora, iritsi ezina, gure bizitzetan betiko geratuko zenik. Eskerrik asko, Ramon, eskerrik asko... gauza askori buruz hitz egin behar dugu, bihotzeko adiskide, adiskide.

Iruñea, 2022ko martxoaren 6a

Pío GUERENDIÁIN

Erakusketa bat antolatzerakoan, koordinatzaile edo komisarioak kontuan hartu behar ditu erakusketaren helburuak, espazio mota, zer nolako ikusleei zuzenduta dagoen, lanen hautaketa, kostu ekonomikoa etab. Niri neuri, eta are gehiago taldeko erakusketetan, egile desberdinen sentsibilitateekin aritzeak ere lan pixka bat eman izan dit.

Ramonekin salbu. Harekin dena erraza zen. Edozer eskatzen niola, beti zegoen emateko prest, baldintzarik gabe. Gogora datozi gure lehen konbertsazioak; aspaldiko urte haietan niretzat sekulako ikasbidea izan ziren: Ramonen gozotegian nahiz etxean, hitz-aspertuan, haren lanaz aritzen ginen —zinez aberatsa, genero zein teknikatan—, eta baita beste argazkilari batzuenaz ere. Urte luzez ibili ginen solasean eta elkarlanean, hura beti samur eta jator, eta 80ko hamarkadaren erdialdean horren fruitu izan ziren banakako erakusketak (Elgoibar) eta taldekoak (Odesa, Ukraina), baita 1997an *Aurrez Aurre* erakusketa ibiltaria ere; orduko harten bere lanak erakusteaz gain, katalogoa egiten lagundu zigun. Baino, gure egitasmoetan zuzenean parte hartzeaz haratago, etenik gabeko informazio eta inspirazio iturri izan ditut haren ezagutza sakona eta dibulgaziorako sena, bat gentozentzera bizi genituen arazo eta jakinguretan.

Eskuzabal beti, nola ahaztu haren ahots goxoa, irribarrea musuan dantzan...

JESUS MARI SARASUA

Ramonek argazkigintzarekiko zuen pasioak mugarik ez zuela esan dezaket. Zarautzera etorri bezain pronto, bera maisu trebea izan nuen. Naturaren zirrikituak irudikatzen erakutsi zizkidan, landarea ez zen bakarrik landare, berarekin batera, kontrastea, konposizioa, argitasuna, kolorea, edertasuna...

Laguntasun medio, egiten nituen argazkiak arretaz miatzen zituen, aholkuak emanez, ezagutzak konpartituz, eta kameraren aurrean jartzen nintzenean arte honek duen indarra eta esentzia bilatzeko bideak erakutsiz.

Gogoan dut ere, ikasle ugarien aurrean, ikastolako paretak forma, kolore eta irudi ikusgarrienaz nola margotu zituen proiekzio ahaztu ezin batean.

Ramon, argazkigintzan genio eta figura, pertsona bezala, adiskide mina. Askotan, kamerak eskuetan eta begien aurrean ditudanean bere ahotsa sentitzen dut, irudiak eta uneak harrapatzeko aholkuak ematen, ...eta harro sentitzen naiz, natura argazkiratzen arrasto ugari erakutsi zizkidalako eta izugarri disfrutatzen dut, berak egiten zuen modura, ingurunea irudikatzen.

JOXEPO TERES

## TEXTOS COMPLEMENTARIOS

La historia de la fotografía es casi paralela a la historia de los museos. Recordemos que la invención de los primeros procedimientos de captación y registro de imágenes fotográficas se produce en el primer tercio del siglo XIX, al mismo tiempo que se abren muchos de los museos que hoy admiramos, incluido el Museo del Prado. De hecho, antes de la muerte de Goya en 1828, el francés Niépce ya consiguió fijar una imagen tomada desde la ventana de su casa, la que se considera la primera fotografía. Sin ser consciente de ese gigantesco avance de la técnica, el anciano pintor aragonés aún entonces se encontraba fascinado por las posibilidades expresivas que le ofrecía la novedosa litografía.

Antes de la fotografía, e incluso del museo, Goya tuvo que dibujar para grabar al aguafuerte copias de los cuadros de Velázquez de la Colección Real. Si hubiera existido la fotografía nos habríamos perdido su particular lectura de *Las Meninas* y de otras obras maestras del sevillano.

Efectivamente, la reproducción artística fue la primera función de la fotografía en los museos, sustituyendo a los grabados, que, prácticamente desde la invención de la estampa moderna, habían servido para difundir las imágenes de las grandes obras. La rápida evolución de las técnicas fotográficas no hizo más que mejorar su calidad, incorporando el color y facilitando, a su vez, imágenes de una extraordinaria veracidad a los medios de impresión mecánicos.

Insertos hoy como estamos en el mundo digital, esta calidad en la toma y reproducción fotográficas alcanza resultados realmente asombrosos, como en la llamada imagen de Gigapíxel. Hace unos pocos años, el Museo del Prado divulgó en ese formato algunas de sus obras maestras a través de Google Earth. Desde la invención del museo en los albores de la edad contemporánea, no se había producido un ejercicio de democratización del arte tan radical como ese viaje libre de derechos por el universo expandido de Internet.

No debemos olvidar tampoco las beneficiosas secuelas de la evolución de la fotografía para el registro de otras técnicas de análisis y estudio del arte, como son los rayos X, ultravioleta o la magia de la reflectografía infrarroja, que nos ha permitido perfeccionar el ojo científico del museo también hasta límites insospechados.

Junto a este imparable alarde técnico, a la fotografía y al museo les ligó pronto también la mirada decisiva del artista, del fotógrafo que se acerca al templo del arte con la cámara para interrogar a las obras de otros artistas y a sus visitantes.

Finalmente, esta íntima relación, como la pescadilla que se muerde la cola, convierte tarde o temprano a la propia fotografía en objeto de interés del museo o, como en este maravilloso Photomuseum de Zarauz, en su principal motivo de especialización. En su casa, fotografía y museo, rinden hoy homenaje a uno de sus fundadores, nuestro querido y recordado Ramón Serras.

MIGUEL ZUGAZA

Han transcurrido más de cuatro décadas desde la creación de la Sociedad Fotográfica de Zarautz, y hoy por hoy, es una asociación perfectamente consolidada y llena de actividades: exposiciones, rally, proyecciones, concurso, cursillos, *Mostra Internacional*, entre otros. Todo ello pensado para que la Sociedad tuviera un carácter didáctico, de formación y popular; organizada por el pueblo para el pueblo. Y si hay a quien reconocérselo, es a Ramon Serras, quien puso los cimientos de la agrupación para que otros disfrutaran de lo que era su gran afición: la fotografía.

Ramón fue el primer presidente de la Junta, ejerciendo como un incansable y comprometido trabajador. Cultivó las relaciones con otras federaciones buscando colaboraciones de personalidades que aportaran. Con gran espíritu de superación y su carácter determinado buscó la excelencia en todos los proyectos en los que se embarcó.

Los socios de ZAE tenemos mucho que agradecerle y, por ello, en 2021, año de su fallecimiento, la Junta decidió que su proyecto más querido, *LA MOSTRA*, en adelante, llevara su nombre: *MOSTRA INTERNACIONAL DE FOTOGRAFIA DE ZARAUTZ "RAMON IGNACIO SERRAS"*.

En nuestra memoria, siempre.

**ISABEL AGIRRETXE**  
Presidenta *Zarauzko Argazkizale Elkartea*

Ramón Serras, fue y ha sido siempre para mí, un gran y sincero amigo. He tenido el privilegio de conocer a miles y miles de artistas. Pero él siempre estará presente en el justo y destacado espacio que comprenden los diez dedos de mis manos...

Amigo, (superando a la fotografía), con recordados encuentros en mi tierra y la suya - *Euzkadi* - como la expresaban y recordaban a los difíciles años cuarenta, mis viejos y entrañables amigos vascos, exiliados y deportados en Reus, antiguos compañeros del entorno de Jose Antonio Agirre... )

Tradicional colaborador en nuestros antiguos *Salones Internacionales de Reus*, en su calidad de autoridad de Jurado, actuó como puente de amistad entre las Sociedades Fotográficas de su país... la elocuencia rebosante en las charlas, sus comentarios alegres y a menudo explosivos en genialidad...

La importancia del innovador trabajo, junto al entorno del gran proyecto de creación de un primer Museo sobre la fotografía en el Estado... un reto que posiblemente tan solo fue posible en su tierra...

Mis recuerdos en la añoranza de comidas entrañables junto a su viejo caserío familiar, descubriendo la íntima gastronomía del país... o algún encuentro en su peña gastronómica, donde tuve el placer de espiar a algún excelente cocinero, y cocinar algún viejo plato...

Y los paseos por hayedos, en tiempos de setas... el recuerdo de luces, y la suavidad de las brumas y neblinas del comienzo del día...

El placer de contemplar su obra... pionero experimentador del *Polaroid SX*... (al que imitarían siguiéndole otros amigos), innovador en sus facetas enlazadas y múltiples de obra...

...apasionado por los acantilados al borde del mar que trataba como particular estudio fotográfico junto a los hermosos contornos de preciosas modelos...

...sus panorámicas junto la playa de Zarautz, con gran valor de reportaje...

...íntimo experimentador del *collage* (tesoro oculto que pocos tuvieron placer de admirar, y que aconsejo vivamente visionarlo detenidamente considerándolo un gran legado de su obra)...

...investigador del *arte povera*, y la *pinhole*, tratada con exquisita visión sobre los bosques y naturaleza que describiría en colores potentes, junto a helechos y flores...

Que más podría describir... tan solo la añoranza de un último encuentro en Cataluña, hace ya muy pocos años, al calor de antiguos amigos, y escogiendo nuevamente los bosques junto a una ermita, quizás, hermanando viejos sentimientos de añoranza entre la fraternidad de la tierra y la naturaleza...

**JOSEP M RIBAS I PROUS**

## LA SOMBRA POSITIVA DE RAMON

A últimos de los 80, siendo director de los Talleres de Fotografía Avanzada, de la Agrupación Fotográfica de Navarra, acudió por Pamplona Cristina Zelich para impartir uno sobre la técnica del papel salado, primer procedimiento de negativo-positivo, el calotipo inventado por Fox Talbot en el siglo XIX. Causó expectación en los participantes, ver cómo aparecía ante sus ojos sobre un papel de acuarela previamente sensibilizado con ferricianuro potásico y colocado en exposición al sol directo en contacto con el negativo, una imagen positiva en tono monocromo ligeramente violado, que recordaba un Polaroid primitivo que se veía revelar, a plena luz del día.

Interesado por el procedimiento trabajé con él una larga serie de negativos, en papel de formato 24x24 cm. sobre un tema, para mí clásico y recurrente: los Toldos de la playa de Zarautz. Enseñé los resultados a Ramón y me propuso que, ya que él continuaba con su trabajo en el mismo tema, pero con Polaroid manipulado, podíamos hacer una exposición conjunta en 1991 en la galería Zazpi en el centro de Zarautz. Dicho y hecho, fue un gran éxito de visitantes y... ¡hasta de ventas!

Entre mis calotipos incluí un retrato de Ramón apoyado en una pared blanca cerca de la playa, donde había sido dibujado de cuerpo entero y a tamaño natural, por su amigo el pintor *Luziano*. Cuando apareció la imagen del Talbotipo, me pareció que Ramón tenía detrás suyo la sombra en positivo que reflejaba a la perfección su forma de ser y el legado que nos iba dejando con su ilusión, trabajo, entusiasmo y amistad.

Cualidades demostradas toda su vida y en todas sus facetas. Como pastelero, continuando la tradición paterna, sus tartas Saint Honoré, sus pasteles de Capuchina, de Ponche, sus planchas de bizcocho ligero recubiertas de nata y chocolate, sus turrones de todas clases, sin que faltase el cocodrilo de tamaño casi real, sus bombones, sus trufas. El paraíso para pequeños y grandes.

Como fotógrafo no paraba, todos los días en lugar de siesta, paseo por la larga playa, a fotografiar todo lo nuevo que veía. Y con su mujer Celina, su musa y modelo, en todos los procedimientos de blanco y negro, color, diapositivas, Polaroid manipulado, se le notaba su aprendizaje de pintura, unas veces de modelo enmarcada en las rocas del Flysch de la costa, otras de maga y bruja inquietante de las montañas de su amado País Vasco. Los deportes, las fiestas, folklore, todo tenía interés para él.

Como coleccionista, primero de cámaras y fotos antiguas y luego con su amigo Leopoldo Zugaza, iniciando los primeros pasos de la formación de lo que ha llegado a ser el primer museo de fotografía de toda España, el Photomuseum de Zarautz.

No llegué a pensar que aquella gran sombra positiva, inabarcable, prolífica que cubría cuantos actos y personas rodeaba, iba a quedar indeleble en nuestras vidas. Ramón gracias, muchas gracias..., que tenemos que hablar de muchas cosas, compañero del alma, compañero.

Pamplona 6 de Marzo de 2022

Pío GUERENDIÁIN

En toda exposición, el coordinador o comisario ha de tener en cuenta los objetivos, el espacio donde se expondrá, el público al que va dirigida, la elección de las obras, su coste económico, etc. En mi caso, y más aún en las exposiciones colectivas, también me ha resultado laborioso lidiar con las diferentes sensibilidades de los autores.

Salvo cuando se trataba de Ramón. Con él todo eran facilidades. Daba igual lo que le pidiese, siempre estaba dispuesto a dar, sin condiciones. Me vienen a la memoria aquellos primeros encuentros, hace muchos años, en los que tanto aprendí; en su obrador y en su casa, hablábamos de su trabajo -en el que cultivó muchos géneros y técnicas-, y del de otros fotógrafos. Las conversaciones y colaboraciones se repetirían, con su característica afabilidad, a lo largo de muchos años y se materializaron a mediados de los 80 en exposiciones individuales (Elgoibar) o colectivas (Odesa, Ucrania), y en 1997 con la itinerante *Aurrez Aurre*, en la que además de exponer, colaboró en su catálogo. Pero más allá de su participación directa en nuestros proyectos, su conocimiento del medio y su carácter divulgador han sido una fuente constante de información e inspiración, pues coincidíamos en problemática e intereses.

Siempre generoso, cómo olvidar su hablar dulce, mientras en su cara se dibujaba una sonrisa...

JESUS MARI SARASUA

Puedo decir que la pasión de Ramón por la fotografía no tenía límites. Nada más llegar a Zarautz, le tuve de hábil maestro. Me enseñó a representar los entresijos de la naturaleza, la planta no era sólo planta, junto con ella, el contraste, la composición, la claridad, el color, la belleza...

Con la amistad por escusa, examinaba cuidadosamente las fotos que hacía, me asesoraba, compartía conocimientos y cuando me ponía delante de la cámara me mostraba los medios para buscar la fuerza y la esencia que tiene este arte.

También recuerdo cómo, ante numerosos alumnos, pintó las paredes de la ikastola con la forma, el color y la imagen más vistosa en una proyección inolvidable.

Ramón, genio y figura de la fotografía, como persona, amigo íntimo. Muchas veces, cuando tengo las cámaras en mis manos y delante de mis ojos, siento su voz, dándome consejos para captar imágenes y momentos... y me siento orgulloso porque me enseñó muchas pistas para fotografiar la naturaleza y disfruto muchísimo, como él hacía, representando el entorno.

JOXEPO TERES